

Lizitazio iragarkia

MUTRIKUKO UDALA

Deialdia, Mutrikuko Udalak udalerraren barruan landa inguruko lursailak salerosketa bidez erosteko.

1. Erakunde esleitzaileria.

- a) Espedientea tramitatzen duen organoa: Mutrikuko Udala.
- b) Espedientea izapidetzen duen zerbitzua: Idazkaritza Teknikoa.

2. Kontratuaren xedea.

Xedearen azalpena: Mutrikuko udalerrian landa inguruko lursailak salerosketa bidez erostea.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko irizpideak.

- a) Izapidetzea: Arrunta.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Esleitzeko irizpideak: Ikus baldintza administratibo berezien agiria.

4. Kontratuaren oinarritzko aurrekontua.

Zenbatekoa: 70.000 euro.

Zenbateko horretan jasotzen dira eragiketa kargatzen duen zerga (Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo Ondare Eskualdaketa gaineko Zerga) eta tasak.

5. Bermeak.

Ez da aurkeztu behar.

6. Dokumentazioa eta informazioa jasotzeko tokia.

- a) Erakundea: Mutrikuko Udaleko Idazkaritza Orokorra.
- b) Helbidea: Txurruka plaza, z/g.
- c) Herria: 20830 Mutriku.
- d) Telefonoa/faxa: 943603244/943603692
- e) Web orria: www.mutrikukoudala.net

7. Eskaintzen aurkezpena.

a) Aurkezteko epea: HAMABOST EGUN, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori azken eguneko 15:00ean amaitzen da. Muga-eguneko hilean hasierako egunaren baliokiderik ez bada, hilaren azken egunean bukatuko da epea. Proposamenak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, epea hurrengo laneguneko 15:00 arte luzatuko da.

Proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira. Horrela egitekotan, lizitatzailerak Postetxeko bulegoan jarritako bidalketa-data zuritu beharko du eta egun berean kontratazio organoari telex, telegrama edo fax bidez adierazi beharko dio eskaintza bidali duela. Bi baldintza horiek betetzen ez direnean, proposamena ez da onartuko, baldin kontratazio organoan eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero jasotzen bada. Dena dela, egun horretatik hamar egun natural iragan badira jaso gabe, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

- b) Aurkeztu beharreko agiriak: Ikus baldintza administratibo berezien agiria.
- c) Aurkezteko tokia: Mutrikuko Udaleko Erregistro Orokorrean, Txurruka Plaza, z/g, 20830, Mutriku.

8. *Eskaintzak irekitzea.*

- a) Erakundea, helbidea eta herria: Mutrikuko Udaleko bulegoetan, Txurruka Plaza, z/g, 20830, Mutriku.
- b) Data/Ordua: Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik lau egunetara, 12:00tan (larunbata izanez gero, hurrengo lanegunera igaroko da).

9. *Iragarkien gastuak.*

Kontratuaren esleipendunaren kargura.

Mutrikun, 2009ko urriaren 30ean

ALKATEA